

# ARTIUM MUSEOA

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa  
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco

## URRIA AZAROA ABENDUA 2023

### 3 Erakusketak

*Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)*

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta. Nerea Lekuona. *Idealak / Ideales*

Julia Spínola. *Persona, foto, copia*

Carolina Caycedo. *Adiskideen lurraldea*

Naomi Rincón Gallardo. *Soneto de alimañas. Z aretoa*

### 9 Jarduerak

Praktika artistiko garaikideen hastapenak. UNED

Lagunartean: Susana Talayero, Iñaki Gracenea, Bene Bergado

Euskal emakume zinemagileak III. Euskadiko Filmategia

Hasieratik. Zinema feministaren historiak

Familiantzako programak

Abenduko zubiko eta Eguberrietako lantegiak

Bisita gidatuak. LORATEGItik

### 18 Lankidetzak

Agenda hau bertsio laburtua da. Museoaren programazio osoa eta eguneratua artium.eus webgunean topatuko duzu:



Frantzia kalea, 24  
01002 Vitoria-Gasteiz  
00 (34) 945 20 90 20  
museo@artium.eus  
artium.eus

## **ORDUTEGIA**

### MUSEOA

Asteartetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara

Larunbat eta igandeetan, 11:00etatik 14:00etara

Jai egun ez diren astelehenetan itxita

Urriaren 12an eta 13an, 11:00etatik 20:00etara

Azaroaren 1ean, 11:00etatik 20:00etara

Abenduaren 6tik 10era, 11:00etatik 20:00etara

Abenduaren 24ean eta 31n, 11:00etatik 14:00etara

Abenduaren 25ean, itxita

Abenduaren 26tik 30era, 11:00etatik 20:00etara

### LIBURUTEGI ETA DOKUMENTAZIO ZENTROA

Astelehenetik ostiralera: 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era

## **TARIFAK**

Doako sarrera

- Arratsaldero
- Igandeetan egun osoan
- 14 urtez azpikoentzat, ikasleentzat, langabetuentzat eta pentsiodunentzat

Tarifa orokorra: 5 €

Oharra:

Jardueretan alde zuzeneko izena ematea gomendatzen dizuegu, edukiera-arazoak saihesteko eta informazio eguneratua izateko egutegian aldaketarik izanez gero.

**ERAKUSKETAK**



*Bilduma Hau Colección. Oinarrizko mugimenduak (1950-2000) erakusketaren ikuspegia*

***Bilduma Hau Colección.  
Oinarrizko mugimenduak (1950-2000)***

2023ko martxoaren 31tik aurrera

A0 aretoan

“Hau” erakusle bat da, eta hurbiltasuna adierazten du. Erakusleak hitz egiten duenaren eta hizpide den gaiaren arteko distantzia adierazteko baliatzen dira. Hala, kokatzen laguntzen dute, posizio bat zehazten baitute. Baina *hau* hitzak baditu beste adiera batzuk beste testuinguru batzuetan. Marcel Mauss frantses antropologoak *Essai sur le don* (1925) saiakeran aditzera eman zuenez, maorien artean, emandako objektuei atxikitzen zaien balio espiritualak da *hau*. Museoaren definizioa, historikoki, haren bildumatik dator, guztiona den eta jakintza sortzen eta komunitatea imajinatzen laguntzen duen funts baten izaera publikotik.

Adiera bikoitz horrek atariko modura dihardu museoaren bildumaren funtsen berrantolaketan, berrogeita hamarreko hamarkadan hasi, Mari Paz Jiménez, Jorge Oteiza, eta Néstor Basterretxea Latinoamerikatik itzultzean, eta gaur egunera arteko tarte harturik, Hal Foster teorialariak “errealaren itzulera” deitu zuena ikertuz. Abiapuntu ditu oinarrizko mugimendu batzuk zeinak aktibatzen baitute beti eraikuntzan dagoen narratiba bat. Aurkezpen honek ehundik gora artelan, dokumentu eta artxiboko material biltzen ditu, XX. mendearen bigarren erdian artistek eraikitzen lagundu zuten testuinguruak eta artistek lanean jardun zuten testuinguruak ikertzeko bidea ematen dutenak



*Laboratorio en transición, 2020-2021(1950-2000)*

## **Testuinguruak bilduma batetik abiatuta. Nerea Lekuona *Idealak / Ideales***

2023ko irailaren 22tik abenduaren 10era  
A03 aretoa


Nere Lekuonak (Vitoria-Gasteiz, 1976) *Idealak / Ideales* erakusketan bere azken aldiko bi lanen arteko elkarrizketa aurkezten du. Bi mural handi dira, elementuak eta kontzeptuak elkartuz osatuak, eta Trantsizio politikoaren inguruan gatazkan dauden kontakizunen arteko espazioan kokatzen dira.

Arabako Gobernu Zibilaren artxiboan egindako ikerketa baten ondorioz, Lekuonak *Laboratorio en Transición* izeneko lan bat burutu zuen. Ehundik gora objektu ditu, memoria duten materialak, hala nola penintsulako argazkiak, dokumentuak, planoak eta mapak, artistak froga-eremu gisa esku hartutako objektu multzo bat, Trantsizioko urteetan boteretik zabaldutako irudimen politikoarekin eta mezuekin jolasten dutenak.

*Consignas* lanean, Lekuonak eskuz diseinatu eta formalizatu ditu Euskal Herriko kaleetan egindako aldarrikapen eta protestetatik ateratako hitzak. Une baten memoria, artistak —emantzipazioko proiektu kolektiboei eta haien baliabideei buruzko bere azterketan— orainaldian kokatzen duena.

**Urriaren 27an, 18:30ean**

Solasaldia Nerea Lekuonaren eta Sejo Carrascosaren artean, Juan Ibarrondok gidatuta.



Julia Spínolaren *Persona*, foto, copia erakusketaren ikuspegia

## **Julia Spínola** ***Persona, foto, copia***

2023ko ekainaren 2tik abenduaren 10era  
A2 aretoa

Erakusketa honetan, Julia Spínolak (Madril, 1979) aurretiaz landutako lanak aurkeztuko ditu, erakusketa honetarako berriaz sortu dituen obra berriekin elkarriketan. Lan berrietan, bere burua eta beste artista batzuk “kopiatzen” ditu, bide horretatik ikertzeko forma eskultorikoen eta forma horiek estaltzen dituzten testuren errepikapenak dakarren plazera nahiz bolumen horiek museoko espazioan kokatuta daudelarik sortzen dituzten erlazioak.

Artistaren aurretiko aurkezpenetan bezala, Spínolak lanerako material gisa darabil argia, bere obrara hurbiltzeko modu desberdinak sortzeko baliatzen baitu. Espazio jakin baten baitako espazioan bere piezen artean topaketa sotilak sortzeari ematen dion garrantziak ikusleari biziartzten dio gauzaten ez den gertaera batean parte hartzeko esperientzia, materialtasun artegarriez inguratuta eta haiekien erlazioan. Ikusgarritasun-maila desberdinen potentzialtasunaren bidetik, erakusketa aldatuz doa erakusketa-aretoetako argi-baldintza aldakorren arabera, egunean zehar, baina baita museoko espazioan dagoen hilabeteetan zehar ere.

Julia Spínolaren lana bakarka erakusgai izan da honako zentro hauetan, besteak beste: Fundació Miró, Bartzelona (2020); ARTIATX, Bilbo (2020); CA2M – Centro de Arte 2 de Mayo, Madril (2018) eta Halfhouse, Bartzelona (2016). DAADren (Berlin) egoiliarra izan zen, eta El Ojo Crítico de Artes Plásticas de Radio Nacional de España saria eskuratu zuen 2013an.

Erakusketa hau Centre rhénan d’art contemporain (CRAC Alsace) erakundearekin lankidetzan antolatu da.



Carolina Caycedo. Baltic Centre for Contemporary Art

## **Carolina Caycedo** ***Adiskideen lurraldea***

2023ko urriaren 6tik 2024ko apirilaren 7ra  
A1 aretoa

Carolina Caycedo (Londres, 1978) artista kolonbiarraren erakusketa honek lan zabal bat biltzen du, egileak berak, munduko hainbat lekutan, baina bereziki Kolonbian, proiektu hidroelektriko handien aurka dauden mugimendu sozialen eta erakunde komunitarioen inguruan egindako ikerketaren emaitza. Antolakuntza-prozesu horiek ekonomia kapitalistaren eta haien aldeko gobernuen erauzketa-politikekin kontraesanean dauden ezagutza-moduak sortzen dituzte, eta haietatik elikatzen dira.

Caycedok ingurumen-justiziaren aldeko borrokaren hainbat alderdi aztertu ditu bere lanean, eta irudi-ekoizpenaren inguruko logika hegemonikoen eta ura gizateriaren zerbitzurako baliabide gisa definitzen duten diskurtsoen berrikuspen kritikoa egin du haien bidez. Aitzitik, haren lanak planetan bizi diren giza eta ez-giza izakien eta entitateen arteko harremanen elkar ulertze mutualista baten alde egiten du (jatorrizko herri askok dute pentsamolde hori bera), baina Mendebaldeko zibilizazio-hierarkiek desoreka sakona sortu dute haientzat, gaur egun klima-aldaketa deritzoguna, hain zuzen. *Adiskideen lurraldea* Carolina Caycedoren lanaren lehen berrikusketa da Europan.

Erakunde hauen arteko lankidetzaren emaitza: Baltic Centre for Contemporary Art, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa-Artium Museoa eta Institut Valencià d'Art Modern (IVAM). Irene Aristizabalek erakusketa hau bera komisariatu zuen Baltic Centre for Contemporary Art museoan.

Artium Museoaren erakusketaren komisarioa: Catalina Lozano.

Urriaren 6an, 18:00etan  
Performancea eta artistarekiko solasaldia

## Z aretoa

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoko Z aretoaren programa mugimenduan dagoen irudia esploratzeko espazio gisa finkatzen da, praktika zinematografikoaren eta arte garaikidearen artean dauden obren bidez. Bertan, forma narratibo berriak bilatzen dituzten egileak ezagutarazten dira, hizkuntza zinematografikoa historikoki definitu duten konbentzioak, generoak eta kategorizazioak zalantzan jarriz.



*Soneto de alimañas, 2022.*  
Argazkia: Gesner Melchor

### Naomi Rincón Gallardo

#### ***Soneto de alimañas***

2023ko urriaren 6tik 2024ko urtarrilaren 7ra

Z aretoa

Bere lanean, Naomi Rincón Gallardok (Raleigh, 1979) antzinako mito mesoamerikarrak berreskuratu eta eguneratzen ditu — edo «sasikotzen» ditu, artistaren beraren hitzetan— estraktibismoak eta indarkeria neokolonialak erasandako Mexikoko egungo errealitateei buruz hitz egiteko, baina baita mendebaldeko aurrerabide-paradigmek eraikitako imajinarioetatik ihes egiten duten beste etorkizun posible batzuei buruz espekulatzeko ere.

Rincon Gallardo ikerketetan oinarritzen da, non feminismo kolonialak, teoria *cuir*-ek eta zientzia fikzioak pentsamendu moderno kolonial kapitalistaren logika bitarrak asaldatzen dituzten kontakizunak animatzen dituzten. Materialki eta afektiboki hainbat pertsonarekiko lankidetzan oinarritzen diren bideoetan DIY estetika bat sortzen da, jai herrikoiek eta protesta feministek elikatzen dutena.

*Soneto de alimañas* (2022) lanean pertsonaia multzo bat aurkezten du, azpimundutik eta ertzetatik «eldarniozko birexistentzia korapilatuak» ospatzeko elkar hartzen dutenak, ustiategiaren logiken mende dagoen mundu baten erdian. Bertan, uhin erradialen bidez komunikatzen diren izaki baztertuen elkartasuna sortzen da, eta izaki horiek existentzia eta alteritateak indarkeriari eta eraispenari aurre egiteko dakarren potentziala aldarrikatzen dute.

Erakusketa hau MONDRAGONen laguntzarekin egin da



**JARDUERAK**

# Unibertsitate Hedakuntzako Ikastaroa

## Praktika artistiko garaikideen hastapenak

Ikastaroaren xedea da arte garaikidea ulertzeko eta museoetako ondare-kudeaketaren funtsak ezagutzeko oinarri teoriko eta praktikoa ematea ikasleei.

Bere helburuen eta ildo didaktikoen bidez, ikastaroak honako hauek sustatu nahi ditu: arte garaikidearen gaineko ulermen kritikoa, analisirako eta hausnarketarako trebetasunen garapena, eta ingurune artistiko eta kultural bateko kudeaketa museografikoko praktiken ezagutza.

Programan zehar, gaur egungo arte-produkzioan eragina duten diziplinarteko hainbat eremu aztertuko dira, hala nola antropologia, filosofia, eta arte garaikidearen testuinguru historikoa, euskal artea ardatz hartuta betiere.

Halaber, ikastaroak tresnak eskainiko dizkie ikasleei bilduma museografikoaren analisia ezagutzeko, arte garaikidearen arloan kontserbazioaren eta zaharberritzearen printzipio teoriko eta praktikoak ulertzeko, eta dokumentazioak eta artxiboek praktika artistiko garaikideen azterketan eta ikerketan duten garrantzia aztertzeko. Era berean, ikasleen parte-hartzea sustatuko da Artium Museoaren Bildumaren eta *Bilduma Hau Colección. Oinarrizko Mugimenduak (1950 - 2000)* erakusketaren arteko elkarreraginaren bidez.

Ikastaro honek, beraz, arte garaikidea ikuspegi teoriko eta praktikoa batetik aztertzeko eta ulertzeko aukera ematen du, bai eta,aldi berean, kudeaketa museografikorako trebetasunak lortzekoa ere.

Ikastaroa, Artium Museoak eta UNEDek antolatuta, 20 eskola-ordu ditu, urriaren 4, 11, 18 eta 23an eta azaroaren 8, 15, 22 eta 29an egingo diren zortzi saiotan banatuta.

Urriaren 4tik azaroaren 29ra, 10:00etatik 12:30era  
Doako matrikula. Izen emateak: UNEDeko webgunea

# Lagunartean

Urrian, abian jarriko dugu Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoko Bilduman dauden artistekiko hilean behingo solasaldi-programa bat. Museoaren Adiskideentzako bereziki diseinatutako topaketa hauetan, Enrique Martínez Goikoetxea Bildumaren kontserbatzailearekin eta aldiko artista batekin hitz egingo dugu, honek Bilduman dituen artelanen inguruan.



## Urriaren 30ean, 18:30ean

Susana Talayero (Bilbao, 1961)

1986an UPV-EHU-n Arte Ederretako lizentzia eskuratuta, Erromara aldatu zen, eta hamar urtez aritu zen han lanean. Haren obraren berezitasun nagusia da aurkitutako izaera xumeko objektuekin –hala nola papera, gutun azalak, kartoiak, material plastikoak– esperimentatzea eta horiek lanetan

xertatzea, itsatsita nahiz marrazteko eta margotzeko euskarri gisa erabiliz. Erakusketei dagokionez, nabarmentzekoak ditu *Presagios*, Mallorcako Casa de Cultura de Santanyí (2021) eta Bilboko Arte Ederren Museoak antolatutako *Kronika geldiezina* 1987-2016 atzerabegirakoak.



## Azaroaren 27an, 18:30ean

Iñaki Gracenea (Donostia, 1972)

Arte Ederretako lizentziaduna da (UPV-EHU). Bere lanen bidez kontrol-egiturek sortzen dituzten irudiak kolokan jartzea bilatzen du, arteak haiei esanahi berria emateko duen ahalmenaren ikuspegitik, eta, azken hamarkadan, kontrol-arkitektura eta espetxe-arkitekturaren historia izan ditu ardatz. Arlo horietan

landutako proiektuak ikusgai izan dira New Yorkeko Lloyd Sealy Library John Jay College / CUNY-n eta Espainiako Akademian, Erroman



## Abenduaren 18an, 18:30ean

Bene Bergado (Salamanca, 1963)

80ko hamarkadan Bilboko Arte Ederren fakultatean trebatutako belaunaldi bateko kidea, eta fakultate horretako irakasle izan da hamarkada batez. Haren obrek kontsumo-ohiturei eta kontsumo-praktikei buruz dihardute, bizi garen gizartea eraldatzeko duten ahalmenaz, eta proposatzen dizkigute objektu

hibridoak, errealtatearen eta fikzioaren artekoak. Azken proiektuen artean, nabarmentzekoak ditu, *Persona* (MUSAC 2020), eta Bilboko Azkuna Zentroan ikusgai dagoen *Decrecer* erakusketa.

Museoaren Adiskideen kolektiboarentzat antolatutako jarduera.

Erreserbak 945 20 90 20 telefonoan edo Adiskideen WhatsApp-ean

## Euskadiko Filmategia



### Euskal emakume zinemagileak III

Euskadiko Filmategiak Euskal emakume zinemagileak zikloaren hirugarren edizioa antolatu du urteko azken hiru hilabeteetan, bere ibilbideetan gutxienez film luze bat grabatu duten euskal emakume zinemagileen talentua agerian jartzea helburu duen programa. Aurreko edizioetan bezala, zinemagile bakoitzak libreki hautatu du bere film guztien artean zein erakutsi nahi duen, eta jendaurrean aurkeztuko du.

- Urriaren 5ean

*Arnasa batean.* Bertha Gaztelumendi, Rosa Zufá, 2023

- Urriaren 19an

*El sueño de la sultana.* Isabel Herguera, 2023

- **Urriaren 26an**  
*Matrioskas, las niñas de la guerra.* Helena Bengoetxea, 2021
- **Azaroaren 2an**  
*Próxima estación.* Estela Ilárraz, 2007
- **Azaroaren 9an**  
*Alardearen seme-alabak.* Jone Karres, Eneko Olasagasti, 2013
- **Azaroaren 23an**  
*My way out.* Izaskun Arandia, 2022
- **Azaroaren 30ean**  
*Azken bidaia.* Enara Goikoetxea, Iurre Telleria, 2011
- **Abenduaren 7an**  
*Pelota II.* Olatz González de Abrisketa, Jorgen Leth, 2015
- **Abenduaren 14an**  
*Irrintziaren oihartzunak.* Iratxe Fresneda, 2016
- **Abenduaren 21ean**  
*El último verano.* Leire Apellaniz, 2016

Urriko, azaroko eta abenduko ostegunak, 19:00etan  
Sarrerak, 3,5€ Artium Museoaren Adiskideak, 2€  
25 urtez azpikoak: sarrera doan (museoaren txartel-leihatilan)  
Sarrerak non erosi: museoaren txartel-leihatilan eta artium.eus

# Zinema Zikloa

## Hasieratik. Zinema feministaren historiak

Zinema-ziklo honen helburua da emakume zinemagileak eta haien filmak ezagutaraztea. Errealitate horiek zinema kanonikoaren historiatik kanpo geratu dira, eta ezinbestekoa iruditzen zaigu aldarrikatzea. Hasiera batean ibilbide kronologiko bat proposatu genuen, eta geroago filmen arteko harremana eraiki genuen zinemaren bidez. Edizio berri honek berrikuntza bat du: zinemagileek beraiek proposatuko dituzte emakumeek zuzendutako filmak zinemaren historian zehar, eta zinema-zuzendariek beraiek aurkeztuko dituzte saioak.

Hilean behin, zuzendari bakoitzaren unibertso zinematografikora hurbilduko gara. Ibilbide posible bat, pixkanaka, gure zinemaren historia berridazten jarraitzeko.

Tabakalera-Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroaren eta Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren, Artium Museoaren arteko lankidetzaz

**Urriaren 1ean, 18:00etan**

*Les glaneurs et la glaneuse (Los espigadores y la espigadora)*

Agnès Varda, Frantzia, 2000, 82 min

Aurkezpena: Marina Palacio, zinemagilea

**Azaroaren 5ean, 18:00etan**

*Ratcatcher*

Lynne Ramsay, Erresuma Batua, Frantzia, 1999, 94 min

Auzkezpena: Clara Rus, zinemagilea

**Abenduaren 3an, 18:00etan**

*Fifi howls from Happiness*

Mitra Farahani, EEUU, Iran, Frantzia, 2013, 96 min

Aurkezpena: Tamara Lucarini, zinemagilea

Tarifa: 2€ / Tarifa Amigas y amigos del museo: 1€

Argibide gehiago 945 20 90 20 edo artium.eus

# Familiantzako programak



## **Artium Txikia**

Igande goizetan, txikienek eta haien laguntzaileek Museoko erakusketetan arte garaikidea deskubritzeko eta lantegian era askotako teknika eta materialekin esperimintatzeko aukera dute.

3-5 urte bitarteko haurrentzat, heldu bat lagun dutela

Igandeak, 11:30etik 12:45era

Tailer-bisita elebiduna (euskaraz eta gaztelaniaz)

Sarrera: helduak 5€ eta haurrak 2€ / Museoaren Adiskideak: % 50eko beherapena

Argibideak eta erreserbak: 945 20 90 20

## **Good Morning, Artium!**

Igande goizetan, haurrak eta haien laguntzaile helduak arte garaikideari hurbil dakizkioke eta, aldi berean, ingelesa praktikatu. Museoko erakusketen bisita egiteaz gainera, haurrek askotariko metodo eta gaiekin esperimintatzeko aukera izango dute lantegian. Arropa egokia ekartzea gomendatzen da.

6-12 urte bitarteko haurrentzat, heldu batek lagunduta

Tailer-bisita ingelesez

Igandeak, 11:30etik 13:30era

Sarrera: helduak 5€ eta haurrak 2€ / Museoaren Adiskideak: % 50eko beherapena

Argibideak eta erreserbak: 945 20 90 20

## Abenduko zubiko eta Eguberrietako lantegia

Abenduaren 6tik 9ra, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik a 19:30era  
Abenduaren 26tik 30era, 11:30etik 13:30era eta 17:30etik a 19:30era  
Abenduaren 31n, 11:30etik 13:30era

5-12 urte bitarteko haurrentzat, heldu bat lagun dutela  
Argibide gehiago eta erreserbak 945 20 90 20 telefonoa

## Bisita gidatuak

LORATEGItik doako bisita gidatuen programa bat da, Artium Museoaren erakusketa-eskaintza osoa ezagutzeko hainbat ibilbide esperimentatzea proposatzen duena: eraikina, gure bilduma eta/edo aretoetako erakusketa monografikoak.

Bisita guztiak museoaren lorategitik abiatzen dira, auzoari berdegunea ekarri dion proiektua, boluntarioek zaintzen dutena.

Asteazkenetan 18:00etan eta igandeetan 12:30ean  
Sarrera doan museoko sarrerarekin  
Erreserbak 945 90 20 90 telefonoan edo artium.eus webgunean



# Lorategia



Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa espazio berde bat du bere barruko plazan, museoko lorategia. Lorategi honek bost zentzumenetara bidaiatzeko leku bat eman dio auzoari, eta artea eta natura uztartzeko espazio bat.

Gure lorategiak zaintzea behar du berritzeko, irauteko eta hazteko. Landareei arreta egokia ematen bazaie, ortuari buruzko ezagupenak badituzu edo denbora pixka bat baduzu eta auzoko txoko berde hau zaintzen ikasi eta lagundu nahi baduzu, eman izena 945 20 90 20 telefonoan edo hurbildu zaitez gure txarteldegira, ekimen honen eta bertan parte hartzeko moduaren berri izateko.

Ostiralero, 17:30ea

**LANKIDETZAK**

## **danZálava**

Altrastek antolatutako dantza jaialdia

### **Urriaren 7an eta 8an**

Elena Córdoba | *Anatomía poética*

- Lantegia: urriaren 7an eta 8an

Argibideak eta erreserbak: danzalava@gmail.com

- Emanaldia: urriaren 7an, 20:00etan

Sarrera doan, toki mugatua. Argibideak 945 20 90 20 telefonoan

### **Abenduaren 6tik 10era**

Maria F. Scaroni | *Body/Material*

- Lantegia, abenduaren 6tik 10era

Argibideak eta erreserbak: danzalava@gmail.com

- Performance/ *Impro*, Maria F. Scaroni & Zuriñe Benavente

Abenduaren 9an, 19:30ean

Sarrera doan, toki mugatua. Argibideak 945 20 90 20 telefonoan

Informazio gehiago: [www.artium.eus](http://www.artium.eus) eta [www.danzalava.com](http://www.danzalava.com)

Espacio Sinkro, Bernaola Zikloarekin lankidetzan

## **CinémArtium**

Bilboko Institutu Frantsesarekin elkarlanean, hitzordua proposatzen du Artium museoak, hilean behin, frantseseko filmak jatorrizko bertsioan ikusteko eta, ondoren, ikusitakoari buruzko ideiak eta iritziak partekatzeko solasaldia egiteko, frantsesez hori ere.

**Urriaren 24an**, 18:30ean, *Fragile*, Emma Benestan, 2021

**Azaroaren 28an**, 18:30ean, *Marcher sur l'eau*, Aïssa Maïga, 2022, FR. azpigituluak

**Abenduaren 19an**, 18:30ean, *L'été l'éternité*, Emilie Aussel, 2020

Sarrera doan. Toki mugatua

Argibide gehiago 945 20 90 20 telefonoan

## **Irudika. Nazioarteko ilustrazio topaketa profesionala**

Azaroaren 2tik 4ra

Ilustrazioaren sektorearen nazioarteko topaketa tokiko, estatuko eta nazioarteko testuinguruan. Edizio honetako herrialde gonbidatuak Japonia, Polonia eta Nigeria izango dira. Euskal Irudigileak-ek, Euskadiko Ilustratzaileen Elkarteak antolatua.

## **Tartalo. Arteetako fantasiako adierazpenen I. astea**

Azaroaren 6tik 11ra

Jaialdian, nazioarteko sinposioaz gain, hainbat erakusketa, zine-forum, kontzertu eta liburu aurkezpen izango dira. Artium Museoan inaugurazio eta amaiera ekitaldiak egingo dira —azken horretan Bernardo Atxagak parte hartuko du—, eta baita sinposioaren lehen jardunaldi akademikoa ere, Paula Vilaplana, Antonio Altarriba, Danel Garay edo Natxo Rodríguez adituen parte-hartzearekin.

Argibide gehiago [tartalogasteiz.com](http://tartalogasteiz.com) webgunean

## **Gaztefilm Fest**

Azaroaren 13tik 26ra

Artium Museoan haur eta gazteentzako Zinemaldiaren VII. edizioa egingo da. Haur eta gazteek izango dute protagonismoa, eta jaialdiaren prestakuntza faseetan parte hartuko dute.

Haur eta gazteentzako nazioarteko zinema onenaren sorta zaindua eta, gainera, ikus-entzunezkoak sortzeko eta bikoizketarako lantergiak..

Informazio gehiago [gaztefilm.com](http://gaztefilm.com) webgunean

## URRIA

- Ig 1** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik  
Hasieratik. Zinema feministaren historiak
- Al 2** Museoa itxita
- Ar 3**
- Az 4** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
LORATEGItik
- Og 5** Euskal emakume zinemagileak
- Os 6** Carolina Caycedo eta Naomi Rincón Galladoren erakusketen inaugurazioa
- Lb 7** danZálava
- Ig 8** danZálava  
Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik  
Museoa itxita
- Al 9**
- Ar 10**
- Az 11** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
LORATEGItik
- Og 12** Zabalik 11:00etatik 20:00etara
- Os 13** Zabalik 11:00etatik 20:00etara
- Lb 14**
- Ig 15** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik
- Al 16** Museoa itxita
- Ar 17**
- Az 18** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
LORATEGItik
- Og 19** Euskal emakume zinemagileak
- Os 20**
- Lb 21**
- Ig 22** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik
- Al 23** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
Museoa itxita
- Ar 24** CinémArtium
- Az 25**
- Og 26** Euskal emakume zinemagileak
- Os 27** Solasaldia Nerea Lekuona eta Sejo Carrascosaren artea, Juan Ibarrondok gidatuta
- Lb 28**
- Ig 29** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik
- Al 30** Museoa itxita  
Lagunartean: Susana Talayero
- Ar 31**

## AZAROA

- Az 1** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
LORATEGItik
- Og 2** Irudika  
Euskal emakume zinemagileak
- Os 3** Irudika
- Lb 4** Irudika
- Ig 5** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik  
Hasieratik. Zinema feministaren historiak
- Al 6** Museoa itxita  
Tartalo. Arteetako fantasiatzko adierazpenen I. astea
- Ar 7**
- Az 8** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
Tartalo. Arteetako fantasiatzko adierazpenen I. astea  
LORATEGItik
- Og 9** Euskal emakume zinemagileak
- Os 10**
- Lb 11**
- Ig 12** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik  
Tartalo. Arteetako fantasiatzko adierazpenen I. astea
- Al 13** Museoa itxita  
Gaztefilm
- Ar 14** Gaztefilm
- Az 15** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
Gaztefilm  
LORATEGItik
- Og 16** Gaztefilm
- Os 17**
- Lb 18** Gaztefilm
- Ig 19** Gaztefilm  
Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik
- Al 20** Museoa itxita  
Gaztefilm
- Ar 21** Gaztefilm
- Az 22** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
Gaztefilm  
LORATEGItik
- Og 23** Gaztefilm  
Euskal emakume zinemagileak
- Os 24** Gaztefilm
- Lb 25** Gaztefilm
- Ig 26** Gaztefilm  
Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik
- Al 27** Museoa itxita  
Lagunartean: Iñaki Gracenea
- Ar 28** CinémArtium
- Az 29** Ikastaroa: Praktika artistiko garaikideen hastapenak  
LORATEGItik
- Og 30** Euskal emakume zinemagileak

## ABENDUA

**Os 1**

**Lb 2**

**Ig 3** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
LORATEGItik  
Hasieratik. Zinema feministaren historiak

**Al 4** Museoa itxita

**Ar 5**

**Az 6** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Lantegi bereziak  
danZálava  
LORATEGItik

**Og 7** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Lantegi bereziak  
Euskal emakume zinemagileak  
danZálava

**Or 8** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Lantegi bereziak  
danZálava

**Lb 9** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Lantegi bereziak

**Ig 10** danZálava  
Artium Txikia  
Good Morning, Artium!  
Julia Spínola eta Nerea Lekuonaren erakusketen azken eguna  
LORATEGItik  
Museoa itxita

**Al 11**

**Ar 12**

**Az 13** LORATEGItik

**Og 14** Euskal emakume zinemagileak

**Os 15**

**Lb 16**

**Ig 17** Artium Txikia  
Good Morning, Artium!

**Al 18** Museoa itxita  
Lagunartean: Bene Bergadorekin

**Ar 19** CinémArtium

**Az 20** LORATEGItik

**Og 21** Euskal emakume zinemagileak

**Os 22**

**Lb 23**

**Ig 24** Zabalik 11:00etatik 14:00ak arte  
LORATEGItik

**Al 25** Museoa itxita

**Ar 26** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Eguberrietako lantegiak

**Az 27** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Eguberrietako lantegiak  
LORATEGItik

**Og 28** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Eguberrietako lantegiak

**Os 29** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Eguberrietako lantegiak


**Lb 30** Zabalik 11:00etatik 20:00etara  
Eguberrietako lantegiak

**Ig 31** Zabalik 11:00etatik 14:00etara  
Eguberrietako lantegiak

ERAKUNDE SORTZALEA

**araba álava**  
foru aldundia diputación foral

ERAKUNDE BABESLEAK



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

BABESLE PRIVATUAK

**EL CORREO**  
REVISTA DE OPINIÓN

euskaltel

**Vital**  
FUNDACIÓN - FUNDAZIOA

ENPRESA BABESLEAK

eitb

**ESTRATEGIA**

**Diario**

CADENA  
**SEI2**

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK

Berria  
Cadena COPE  
Centro de Cálculo de Álava  
Deusto Sistemas

Fundación Banco Santander  
Fundación Michelin  
Mondragon  
Mondragon Lingua

Onda Cero  
Onda Vasca  
Radio Vitoria  
Tubacex  
Xabide, gestión cultural y comunicación